

**GAZTE BAT**

**GAZTE-TALDE**

**BORTITZ BATEKIN LOTZEN**

**AHAL DUTEN**

**ADIERAZLEAK**

**FORUZAINGOA – IKERKUNTZA KRIMINALEKO ARLOKO  
INFORMAZIO DIBISIOA**



## AURKIBIDEA

1. KANPOKO ITXURAREKIN ETA ESTETIKAREKIN loturiko adierazleak
2. PORTAERAREKIN loturiko adierazleak
3. Justifikaziorik gabeko LESIOAK izatearekin loturiko adierazleak
4. Gaztearen JARDUERAKIN loturiko adierazleak
5. ARMAK edo beste elementu arriskutsu batzuk izatea edo aldean eramatea

## 1. GORPUTZAREN IRUDIAREKIN ETA KANPOKO ESTETIKAREKIN loturikoak

---

- Koloretako boladun lepokoak eta bestelako objektu sinbolikoak erabiltzea (arrosario handiak, gerriko deigarriak, koroadun "pink" edo zintzilikarioak, zigilu-eraztunak...).



(Lepokoak)

- Gorputzean (agerian edo ez) **tatuajeak** izatea, talde bateko kide dela erakusten dutenak edo bestelako irudiak (eskorpioiak, taldearen inizialak, gaitzizena, amaren edo neska-lagunaren izena...).



(Tatuajeak)

- Kanpoko itxura eta estetika berdintsua hartzea.



(Estetika berdintsua)

- Eskuekin keinu edo imintzioak sarritan egitea.



(Eskuekin keinuak)

- Janzkeran edo estiloan bat-bateko aldaketak. Kolore edo marka jakinak erabiltzea.



(Koloreak)

## 2. PORTAERAREKIN loturikoak

---

- **Lagun taldearekin edo ikaskideekin:**
  - Haiek izendatzeko **ezizenak edo gaitzizenak** erabilitzea, **eskuen keinuekin edo imintzioekin** agurtu edo zirikatzea.



(Eskuekin imintzioak)

- Lagunekin edo ikaskideekin hitz egiteko **mintzakera** berria erabiltzea (jerga eta hitz ulertezinak).

Adibidez, honelako esamoldeak:

- *¿Que lo que?*
- *"Amor de Rey"*
- *"Amor de Tres"*
- Sekretutan ibiltzea lagunekin komunikatzean (inor inguruan ez dagoenean)



hitz egiten saiatzea, leku bakartuetan telefono deiak...)

- **Etengabeko liskarrak** ikaskide jakin batzuekin, aurretik lagun izandakoekin ere bai, itxuraz arrazoirik gabe.
  
- **Irakasleekin:**
  
- **Jokabide agresiboak edo bortitzak** ohartarazi edo zuzenketaren bat egiten zaionean. Erantzun txarrak eta etengabeko errespetu falta.
  
- **Errendimendurik eza** eskolako edo laneko jardueretan, justifikatu gabe ez bertaratzea eta behin eta berriz **pipper egitea**.

### 3. Justifikaziorik gabeko LESIOAK izatearekin loturikoak

---

- **Urratuak edo/eta ubeldurak** izatea aurpegian, besoetan edo hanketan (eta horiek ezkututzen saiatzea) eta ez ematea horien zergatiaren azalpen koherente bat (litekeena da borroka fisikoetan sortuak izatea).
  
- **Zauriak hazkoskorretan, ebakiak edo orbain** egin berriak (arma zuriak edo bestelako tresna zorrotzek eragindakoak) gorputzatal jakin batzuetan (aurpegian, besaurreetan, sabelaldean, bizkarrean...)
  
- Nahita eragindako zauriak (erredurak, mutilazioak, etab.), talde edo pandilla jakin bateko kide izatearekin loturikoak.

#### 4. Gaztearen JARDUEREGIN loturikoak

---

- Bat-bateko interesa musika mota jakin batzuetan (**rap-a**, **hip hop-a**, etab.), pandillekin zerikusia duten pelikuletan...
- **Pandillekin loturiko materialak izatea** (dekalogoa, manifestuak, liburuak, logoak, bileren aktak...)
- Marrazki arraroak edo **pandillen sinbologia** irudikatzen dutenak egitea. Jantzietan (gerrikoetan, txapelaren atzeko aldean), eskolako eta beste jardueretako liburu eta koadernoetan, motxilan, logelan...



(Graffitia)

- **Drogak edo/eta alkohola** hartzen dituenaren susmoa.
- Maiz joatea gazte-talde bortitzetako kideak izan ohi diren **taberna eta dantzalekuetara**.
- Maiz erabiltzea internet, bereziki gazte-talde bortitzekin zerikusia duten webguneak bisitatzea eta lagunekin komunikatzeko "Tuenti" edo "Facebook" bezalako **sare sozialetan** sartzea.

## 5. Arma eta beste tresna batzuk izatea edo aldean eramatea

---

- **Kolpatzeko tresnak:** ukabiletarako burdinazko piezak, kateak, puntadun eraztun handiak...
- **Arma zuriak:** labanak, matxeteak, ebakitako bizar-xaflak... Horiek ezkutatzen saiatzen dira gorputzean bertan, txapeletan, motxiletan...
- Makilak edo borra luzagarriak, defentsarako espraia...



(Hainbat arma edo tresna arriskutsu)

Iruñean, 2011ko apirilean